Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Alkate-udalburuak onetsia Aprobado por la Alcaldía
2022(e)ko ekain aren 27(e)ko 200 zenbakiko Presidencia por resolución Nº 200 de Fecha 27/06/2022
ebazpenaren bidez.
Irun, 4/7/2022
Idazkaria / La Secretaria

2022ZAUN0034

OÑAURREKO HAUR JOLASEN EREMUAN ESTALKIA EGIKARITZEKO PROIEKTUA IDAZTEA ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAREN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DE LA REDACCIÓN DE PROYECTO Y DIRECCIÓN FACULTATIVA PARA LA EJECUCIÓN DE UNA CUBIERTA EN LA ZONA DE JUEGOS INFANTILES DE OÑAURRE

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	MUGIKORTASUN, BIDE PUBLIKO ETA OBRA ARLOA / AREA DE MOVILIDAD, VIA PUBLICA Y OBRAS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2022ZAUN0034

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da **OÑAURREKO HAURRENTZAKO JOLASTOKIAN ESTALKI BAT EGIKARITZEKO PROIEKTU IDAZTEA ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAREN** zerbitzuak ematea, betiere plegu honetan eta kontratu honen baldintza ekonomiko administratiboen pleguan xedatutakoaren arabera eta indarrean dagoen legeriak horri buruz eskatzen duenarekin bat etorriz.

Sorta bakar batek osatzen du kontratu honen xedea.

2.- EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

Proiektu honen xedea izango da Oñaurre auzoaren mendebaldeko muturrean dagoen haurrentzako jolastokia estaltzeko obrak zehaztu eta baloratzea, eta, halaber, orain dauden jolasteko elementu batzuk ordeztea, hondatuta daudelako.

Aisia-eremuak 950,00 m2 inguruko azalera du, guztira, eta horietatik 320,00 m2 jolastokiari berari dagozkio.

Proiektuak estalki bat jartzea aurreikusi behar du, jolasgune osoa haren azpian gera dadin. Gainera, ahalik eta pilare gutxien erabiltzeko moduan diseinatu behar da, eta pilare horiek zirkularrak izan beharko dute eta jolasen segurtasun-eremutik kanpo kokatu beharko dira.

Halaber, alboetan haizetik babesteko neurri batzuk ere aurreikusi beharko dira, baita euri-urak biltzeari, argiteriari eta inguruko urbanizazioa konpontzeari dagokienez ere.

1.ª- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es la prestación de servicios para la **REDACCIÓN DE PROYECTO Y DIRECCIÓN FACULTATIVA PARA LA EJECUCIÓN DE UNA CUBIERTA EN LA ZONA DE JUEGOS INFANTILES DE OÑAURRE**, con arreglo a lo dispuesto en el presente Pliego, en el Pliego de Condiciones Económico Administrativas de este contrato, y de acuerdo con lo exigido al respecto por la legislación vigente.

El objeto de este contrato viene configurado como un único lote.

2.ª- DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A REALIZAR

El objeto de este Proyecto será el de definir y valorar las obras para la cubrición de la actual zona de juegos infantiles emplazada en el extremo oeste del barrio de Oñaurre, así como la sustitución de algunos de los actuales elementos de juego debido a su estado de deterioro .

El ámbito de esparcimiento cuenta con una superficie total aproximada de 950,00 m2, de los cuales 320,00 m2 se corresponden con la zona de juegos propiamente dicha.

El proyecto debe prever la disposición de una cubierta de forma que la totalidad del espacio de juegos quede bajo ésta. Además, se optará por un diseño que requiera el empleo del menor número de pilares posible, debiendo ser estos circulares y ubicarse fuera del área de seguridad de los juegos.

Asimismo, se deberá prever también alguna protección contra el viento en los laterales más expuestos, así como la recogida de aguas de lluvia, el alumbrado y la reparación de la urbanización afectada del entorno.

SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN
2022ZAUN0054

- Lehendik dauden haur-jolasei dagokienez, zehatz-mehatz berrikusi beharko da jolas guztiak zein egoeratan dauden, eta zehaztu egin beharko dira zeintzuk aldatzea komeni den hondatuta edo zaharkituta daudelako, eta horretarako elementu berriak ere proposatu beharko dira, baita elementu berriekin handitzea ere.

Halaber, aurreikusi beharko da orain dagoen segurtasun-zoladura kendu eta berria jartzea, proposaturiko jolasteko elementuen ezaugarrien arabera eta forma eta kolore alaiko diseinuarekin bat etorriz.

Honako baldintza hauek kontuan hartuta diseinatuko da proposatzen den soluzioa:

A. Ohar orokorrak

- Aholkularitza-enpresaren eskura jarriko dira Irungo Udalak proiektuaren eremuari buruz dituen plano topografikoak. Hala ere, informazio zehatzagoa eta xehatuagoa eduki beharko da, eta, beraz, esleipendunak obraren eremuaren jasotze takimetrikoa egin beharko du, bere kontura, horretarako eskala egokian.

- Alternatibak aztertzeko fasean, azterketa geologiko-geoteknikoa egin beharko da, estalkia zimendatzeko modu egokiena zehazteko. Azterketa horren kostua eskainitako ordainsarietan sartuko da. Azterketa horretan lortutako datuekin txosten osatu eta xehatu bat idatzi beharko da, eta, gero, entregatu egingo da. Txosten horretan, lurzoruaren baldintzak jasoko dira, bai eta estalkia zimendatzeko azterlanaren ondorio eta gomendioak ere.

- Proposatutako alternatibekin batera, horien bideragarritasuna eta segurtasuna justifikatzen duten egitura-kalkuluak ere aurkeztu beharko dira.

- Irisgarritasun-, mantentze- eta kontserbazio-irizpideak kontuan hartuta ezarriko da ekipamendua, dagoen espazioa optimizatuz, topografian integratuz eta paisaia sortuz.

- Baldin eta ekipamendu berriak eremuan zehar doazen zerbitzu eta azpiegiturak ukitzen baditu, konpondu egin beharko dira.

- Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea bete beharko du proiektuak.

En cuanto a los juegos infantiles existentes, se deberá revisar minuciosamente el estado actual de la totalidad de los mismos, identificando aquellos que, debido a su estado de deterioro u obsolescencia, conviene sustituir y proponiendo nuevos elementos a tales efectos e incluso su ampliación con nuevos elementos

Asimismo, se debe prever la retirada del actual pavimento de seguridad y la colocación de uno nuevo, conforme a las características de los elementos de juego propuestos y acorde a un diseño con formas y colores alegres.

El diseño de la solución propuesta se llevará a cabo teniendo en cuenta los siguientes condicionantes:

A. Consideraciones generales

- Se pondrá a disposición de la empresa consultora los planos topográficos de que dispone el Ayuntamiento de Irun del ámbito del proyecto. Ahora bien, será necesario disponer de información más precisa y detallada, por lo que el adjudicatario deberá realizar un levantamiento taquimétrico que correrá a su cargo, del ámbito de la obra a la escala adecuada a ese fin.

- Será necesario hacer, en la fase de Estudio de Alternativas, un estudio geológico – geotécnico, cuyo coste estará incluido en los honorarios ofertados, para la definición del modo de cimentación más adecuado para la cubierta. Con los datos obtenidos durante dicho análisis se deberá redactar para su posterior entrega un informe completo y pormenorizado que recoja las condiciones del terreno, así como las conclusiones y recomendaciones del estudio en relación a la cimentación de la cubierta.

- Las diferentes alternativas propuestas deberán ir acompañadas de los correspondientes cálculos estructurales que justifiquen la viabilidad y seguridad de las mismas.

- Implantación de equipamiento teniendo en cuenta los correspondientes criterios de accesibilidad, mantenimiento y conservación, optimizando el espacio existente, integrándose en la topografía y creando paisaje.

- Resolución de todos aquellos servicios e infraestructuras que discurren por la zona y puedan verse afectado por la nueva implantación.

- El proyecto deberá cumplir con la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, sobre la Promoción de la accesibilidad.

B. Estalkiari buruzko ohar espezifikoak

- Lehendik dagoen espazioa optimizatzen saiatu behar da, jolastokia ahalik eta gehien estaliz eta eremu horretan ahalik eta pilare gutxien jarriz.
- Proposatzen den soluzioa inguruaren formetara egokitu eta paisaian integratu beharko da, ekipamendu berriaren ikus-inpaktua minimizatuz.
- Diseinuan, kalitate eta erresistentzia handiko eta mantentze-lan errazeko materialak erabiltzea lehenetsiko da.
- Estaldura argi naturala pasatzen laguntzen duten materialekin egingo da, eta aldi berean, gainera, UV izpien aurkako babesa ere bermatu beharko da.

B. Consideraciones específicas de la Cubierta

- Se buscará optimizar el espacio existente, maximizando la cobertura de la zona de juegos y minimizando el número de pilares en esta última.
- La solución propuesta deberá adecuarse a las formas del entorno e integrarse en el paisaje, minimizando el impacto visual del nuevo equipamiento.
- En el diseño se primará el empleo de materiales de alta calidad y resistencia, así como de fácil mantenimiento.
- La cobertura se formalizará con materiales que favorezcan el paso de luz natural, al tiempo que garanticen la protección frente a los rayos UV.

C. Haur-jolasei buruzko ohar espezifikoak

- Elementu inklusiboak aukeratuko dira, haur guztientzat jolas-esperientzia egokia eragiten dutenak, haien gaitasunak edozein direla ere, eta, era berean, haien arteko bizikidetza eta elkarreragina ere bultzatu behar dute.
- Erabili beharreko jolas-elementu berriak kalitate handiko materialez eginak egongo dira, bandalismoari eta eguraldi txarrari aurre egiteko.
- Egitura guztiak fabrikatzeko erabilitako materialak ez dira toxikoak izango, ezta elektrizitate-eroaleak ere, eta ez dute askatuko kalteak eragin ditzakeen ezpalik. Seguruak eta erresistenteak izan behar dute, euskarri irmo eta egonkorrekin, egituran irtenguneak eta ertzak saihestuz, bereziki lotura-puntuetan eta soldaduretan.
- Proposatutako haur-jolasen elementu guztiek Europako EN-1176 zuzentaraua bete beharko dute, jolas-eremuetako ekipamenduei buruzkoa.
- Jolasek beren segurtasun-eremuak errespetatu beharko dituzte elkarren artean, eta segurtasun-zoladura jarriko da eroriz gero lesiorik ez izateko.
- Proposatutako segurtasun-zoladurak Europako EN 1177 zuzentaraua bete beharko du, Inpaktuak xurgatzen dituzten joko-eremuetako azaleren estaldurei buruzkoa. Segurtasun-betekizunak eta entsegu-metodoak.

C. Consideraciones específicas Juegos Infantiles

- Se optará por elementos inclusivos que supongan una experiencia de juego igual de satisfactoria para todos los niños, independientemente de sus capacidades, y que favorezcan la convivencia e interacción entre ellos.
- Los nuevos elementos de juego a disponer estarán fabricados con materiales de alta calidad, que aporten resistencia frente al vandalismo y la climatología adversa.
- Los materiales utilizados para la fabricación de todas las estructuras no deberán ser tóxicos ni conductores de electricidad, ni desprender astillas que puedan causar daños. Tendrán que ser seguros y resistentes, con sujeciones firmes y estables, evitando salientes y aristas en su estructura, especialmente en los puntos de unión y soldaduras.
- Todos los elementos de juegos infantiles propuestos deberán cumplir con la norma europea EN-1176 de "Equipamientos de las áreas de juego".
- Los juegos se dispondrán de tal manera que se respeten sus áreas de seguridad y se preverá la colocación de un pavimento de seguridad para evitar lesiones en caso de caída.
- El pavimento de seguridad propuesto deberá cumplir con la normativa europea EN 1177 sobre "Revestimientos de las superficies de las áreas de juego absorbedores de impactos. Requisitos de seguridad y métodos de ensayo".

2022ZAUN0034

D. Hiri-altzariak eta lorezaintza

- Lehendik dauden hiri-altzariak zein egoeratan dauden begiratu beharko da, eta zehaztu egingo da zein ordezka daitekeen hondatuta edo zaharkituta dagoelako.

- Jarri beharreko hiri-altzari guztiek dagokien araudia bete beharko dute, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoen oniritzia izan beharko dute.

- Nahiz eta proiektu honen xedeak esku hartzeko eremuaren ondoko berdeguneak ukitzea aurreikusten ez duen, Udaleko Lorezaintza Zerbitzuari kontsultatu beharko zaio, haietan edozein jarduketa egiteko.

D. Mobiliario urbano y jardinería

- Se comprobará el estado actual del mobiliario urbano existente, identificando aquel susceptible de ser sustituido debido a su deterioro u obsolescencia.

- Todos los elementos de mobiliario urbano a colocar deberán cumplir con la correspondiente normativa y contar con el visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales.

- Aunque el objeto del presente proyecto no prevé la afección de las zonas verdes colindantes al ámbito de intervención, cualquier actuación a determinar sobre las mismas se deberá consultar con el Servicio de Jardinería Municipal.

E. Zerbitzu-sareak

- Euri-uren bilketa eta estalkiko argiak diseinatu beharko dira, bai eta sare berri horiek inguruko azpiegiturekin lotzea ere.

- Ukitutako eremu osoaren azaleran behar bezala drainatzen dela egiaztatuko da.

- Zerbitzu-sareak lur publikoetatik joango dira beti.

- Ur-hornidurako eta saneamenduko sareek Txingudiko Zerbitzuek ezarritako irizpideak bete beharko dituzte, eta udalaren irizpideekin bat etorri beharko dute beti.

- Aztertuko egingo da zer argiztapen-behar dakartzan jolastokia estaltzeak, eta inguruan dagoena kontuan hartuta diseinatuko da estalkipea argiztatzeko proposamena, aisialdi-eremu osoan argi- eta uniformetasun-maila egokiak lortze aldera.

  Behar adina argiztapen-azterlan egin beharko da, eremua ahalik eta hobekien argiztatu arte. Dagokion azterketa luminoteknikoak zer dioen, hainbeste argi-puntu jarriko beharko dira.

  Proiektatutako argiek kontuan hartuko dituzte jasangarritasun-irizpideak zein energia aurreztekoak, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoen oniritzia beharko dute, jarri beharreko euskarri eta argien modeloari dagokionez.

E. Redes de servicio

- Se deberá diseñar la recogida de aguas de lluvia y el alumbrado de la cubierta, así como la conexión de estas nuevas redes con las infraestructuras existentes en el entorno.

- Se comprobará el correcto drenaje superficial de toda la zona de afección.

- Las redes de servicio discurrirán siempre por terrenos públicos.

- Las redes de abastecimiento de agua y saneamiento deberán cumplir los criterios establecidos por Servicios de Txingudi, ajustándose en todo momento a criterios municipales.

- Se estudiarán las necesidades de alumbrado derivadas de la cubrición de la zona de juegos, diseñando la propuesta de iluminación bajo cubierta en relación a la existente en el entorno, con el fin de lograr unos correctos niveles de luz y uniformidad en toda el área de esparcimiento.

  Se deberán realizar los estudios de iluminación que sean necesarios hasta conseguir la óptima iluminación del ámbito. El número de puntos de luz a colocar estará acorde con el correspondiente estudio luminotécnico.

  Los puntos de luz proyectados atenderán a criterios de sostenibilidad y ahorro energético, debiendo contar con el visto bueno de los Servicios Técnico Municipales, en lo referente al modelo de soporte y luminaria a colocar.

Argiteria publikoaren sarea lurpetik joango da, estalkipean jarri beharreko luminariak elektrizitatez elikatzeko banakétari dagokion tartean izan ezik.

- Gainerako azpiegituretan, hala nola gasean, telefonian, elektrizitatean eta abarretan, ukitu beharko balira, enpresa hornitzaileetako bakoitzaren arauak bete beharko dira, eta udal-irizpideetara egokituta beti.

Indarrean dagoen hirigintza-araudiarekin bat etorri beharko du proiektuak, eta aplikatu beharreko legezko beste xedapenak ere bete beharko ditu.

3.- LANEN GARAPENA ETA EDUKIA

Honako fase hauetan banatuta egingo da lana:

3.1.- ALTERNATIBEN AZTERKETA

Erantsita doan planoan zehaztutako eremu guztia hartuta aztertuko dira alternatibak.

Fase honetan, oinarrizko proiektua idazteko behar adina datu bildu beharko dira, eta dagoen dokumentazio guztia aztertu.

Fase horretan egingo ditu esleipendunak topografia-lanak, azterketa geoteknikoak eta egitura-kalkuluak, planteatutako irtenbideak bermatzeko.

Biltzen diren datu guztietan oinarrituz, behar eta alternatibak aztertu beharko dira, aukeratzen den irtenbide bateratua garatzeko jarraibide zehatzak finkatzeko beha

Hori guztia alternatibak aztertzeko dokumentu batean jasoko da, eta udalari ale bat emango zaio, paperean eta euskarri digitalean, aztertu dezan eta soluzioa hauta dezan.

Azterketa-prozesu horrek dirauen bitartean, ez da zenbatuko kontratatutako lanak egiteko epea.

Honako hau izango da, gutxienez, alternatiben azterlanaren edukia:

- Obraren eremuko jasotze topografikoa - Egungo egoera.
- Azterketa geologiko-geoteknikoa.

La red de alumbrado público será subterránea, salvo en el tramo relativo a la distribución de la alimentación eléctrica a las luminarias a colocar bajo cubierta.

- En el resto de infraestructuras como gas, telefonía, electricidad, etc., si fuera necesaria su afección, se deberá cumplir las normas de cada una de las empresas suministradoras, ajustándose en todo momento también a los criterios municipales.

El proyecto deberá ajustarse a la normativa urbanística vigente y de la cumplimentación de lo dispuesto en otras disposiciones legales que resulten de aplicación.

3.ª- DESARROLLO Y CONTENIDO DEL TRABAJO

El trabajo se desarrollará siguiendo las fases que a continuación se reseñan:

3.1.- ESTUDIO DE ALTERNATIVAS

El estudio de alternativas abarcará la totalidad del ámbito definido en el plano adjunto.

En esta fase se realizará toda la toma de datos necesaria para la Redacción del Proyecto Básico y se estudiará toda la documentación existente.

Será en esta fase cuando se realicen, por parte del adjudicatario, los trabajos topográficos, estudios geotécnicos y cálculos estructurales que garanticen las soluciones planteadas.

Con todos los datos obtenidos, se realizará un estudio de necesidades y de alternativas con el grado de detalle suficiente para marcar las directrices concretas para el desarrollo de la solución conjunta a adoptar.

Todo ello se recogerá en un documento de Estudio de Alternativas del que se entregará un ejemplar en formato papel y soporte digital al Ayuntamiento, para poder realizar el análisis del mismo y determinar la solución elegida.

Mientras dure dicho proceso de análisis, no se contabilizará el plazo de ejecución de los trabajos contratados.

El contenido del estudio de alternativas será como mínimo el siguiente:

- Levantamiento topográfico del ámbito de la obra – Estado actual.
- Estudio geológico - geotécnico.

- Proposatutako alternatibak identifikatu eta deskribatzea.
- Alternatiben egitura-kalkuluak.
- Soluzioen balorazio ekonomikoa.
- Proposatutako alternatiben infografiak
- Soluzioen konparatiboa - Abantailen eta desabantailen zerrenda.
- Konklusioak eta gomendioak.

3.2.- EGIKARITZE PROIEKTUA

Egindako lanen arabera, Udaleko Zerbitzu Teknikoek, esleipendunak aholkatuta, zer irtenbide aukeratu zehaztuko dute.

Dagokion konponbidea aukeratu ondoren, berriz hasiko da lanak egiteko epea zenbatzen, eta konponbide hori zehaztu egin beharko da, egikaritze-proiektuaren bidez.

Hona hemen proiektuak gutxienez eduki beharko dituen apartatuak:

a) Memoria eta eranskinak
b) Planoak
c) Baldintza teknikoen plegua
d) Aurrekontua

Oro har, salbuespenak salbuespen, dokumentu bakoitzak atal hauek eduki beharko ditu gutxienez:

a) Memoria eta eranskinak

Memoria:
- Aurrekariak eta proiektuaren xedea.
- Aurreko azterlanak.
- Aplikatu beharreko araudia.
- Soluzioaren justifikazioa.
- Lanen deskribapena.
- Lanen exekuzioaren deskribapena, lanak egiteko modua aztertu eta deskribatuta.
- Indarrean dagoen hirigintza-araudira egokitzeko eta aplikatu beharreko legezko xedapenak betetzeko modua.
- Aurrekontua.
- Egikaritze-epea.
- Proiektua osatzen duten dokumentuen zerrenda.

Eranskinak:
- Ukituko diren zerbitzuak.
- Drainatze-sareak.
- Argiteria publikoaren argiztapenari buruzko azterlana.
- Azterlan geologiko-geoteknikoa.
- Egitura-kalkuluak.
- Obra-plana

- Identificación y descripción de las alternativas propuestas.
- Cálculos estructurales de las alternativas.
- Valoración económica de las diferentes soluciones.
- Infografías de las alternativas propuestas
- Comparativo de las soluciones – Listado de ventajas y desventajas.
- Conclusiones y recomendaciones.

3.2.- PROYECTO DE EJECUCIÓN

De acuerdo con los trabajos realizados, los Servicios Técnicos Municipales, asesorados por el adjudicatario, determinarán la solución elegida.

Una vez determinada dicha solución, se reanudará la cuenta en el plazo de ejecución de los trabajos, pasando a la definición de la misma hasta llegar al Proyecto de Ejecución.

A continuación, se exponen los diferentes apartados que deberá contener como mínimo el Proyecto:

a) Memoria y Anejos
b) Planos
c) Pliego de Prescripciones Técnicas
d) Presupuesto

Con carácter general, y sin perjuicio de las excepciones que puedan existir, cada uno de estos documentos incluirá como mínimo los siguientes apartados:

a) Memoria y Anejos

Memoria:
- Antecedentes y objeto del proyecto.
- Estudios anteriores.
- Normativa de aplicación.
- Justificación de la solución.
- Descripción de las obras.
- Descripción de la ejecución de las obras, donde se analizará y describirá el modo de realización de las mismas.
- Adecuación a la normativa urbanística vigente y de la cumplimentación de lo dispuesto en otras disposiciones legales que resulten aplicables.
- Presupuesto.
- Plazo de ejecución.
- Documentos de que consta el Proyecto.

Anejos:
- Servicios Afectados.
- Redes de Drenaje.
- Estudio de iluminación del Alumbrado Público.
- Estudio Geológico – Geotécnico.
- Cálculos estructurales.
- Plan de Obra.

AYUNTAMIENTO DE IRUN SECRETARIA

- Eraikuntza- eta eraisketa-lanetako hondakinen kudeaketari buruzko azterlana
- Segurtasun- eta osasun-azterlana.
- Kalitatea kontrolatzeko programa.

b) Planoak

Egikaritze-proiektuari dagozkionak eta, betiere, proiektua ezin hobeto zehazteko eta idatzi duenak ez beste teknikari batek ulertzeko ezinbestekoak direnak.

c) Baldintza teknikoen plegua

- Baldintza orokorrak.
- Lanen deskribapena.
- Materialen ezaugarriak.
- Obra egikaritzea.
- Obren neurketa eta ordainketa

d) Aurrekontua

- I. kapitulua. Neurketak.
- II. kapitulua. Prezio-taula.
- III. kapitulua. Aurrekontua.

Egikaritze-proiektua idatzitakoan, ale bat eman beharko zaio udalari, behin betiko dokumentua prestatu aurretik, azter dezan.

Udaleko zerbitzu teknikoek planteatzen dituzten aldaketa, zabalpen edo berrikuntzak kontuan hartuta prestatu beharko da behin betiko egikaritze-proiektua.

3.3.- LANEN AURKEZPENA

Dokumentu guztiak txukun eta labur aurkeztu beharko dira idazteko eta marrazteko paperik onenean, eta, ahal dela, ez da aurkeztuko neurriz kanpoko planorik edo erabiltzen zaila denik.

Alternatiben azterlanaren jatorrizko ale bat eta egikaritze-proiektuaren jatorrizko bi ale aurkeztuko dira, bakoitza CD erreproduzigarriarekin eta dokumentazio osoarekin.

Gainera, planoak AUTOCAD formatuan aurkeztu beharko dira, eta aurrekontua, PRESTO edo BC3 formatu aldagarrian.

Era berean, proiektuaren edukia herritarrei behar bezala ezagutarazteko, nolanahi ere, esleipendunak hiru dimentsioko infografiak eta proiektuko lanen deskribapen informatibo eta laburtua ere aurkeztu beharko ditu.

- Estudio de Gestión de Residuos de Construcción y Demolición.
- Estudio de Seguridad y Salud.
- Programa de Control de Calidad.

b) Planos

Los correspondientes a un proyecto de ejecución y en todo caso los necesarios para la perfecta definición del proyecto y su compresión por técnico diferente al redactor del mismo.

c) Pliego de Prescripciones Técnicas

- Condiciones Generales.
- Descripción de las obras.
- Características de los materiales.
- Ejecución de la obra.
- Medición y abono de las obras.

d) Presupuesto

- Capítulo I. Mediciones.
- Capítulo II. Cuadro de Precios.
- Capítulo III. Presupuesto.

Una vez redactado el Proyecto de Ejecución se entregará al Ayuntamiento un ejemplar, con carácter previo a la elaboración del documento definitivo, para su revisión.

Atendiendo a las modificaciones, ampliaciones o reformas que se planteen desde los Servicios Técnicos Municipales, se elaborará el documento definitivo del Proyecto de Ejecución.

3.3.- PRESENTACIÓN DE LOS TRABAJOS

Todos los documentos se presentarán en forma ordenada y concisa sobre papeles para escritura y dibujo de la mejor calidad, evitándose planos de tamaño desproporcionado o de difícil manejo.

Se presentarán 1 ejemplar original del Estudio de Alternativas y 2 ejemplares originales del Proyecto de Ejecución, cada uno de ellos con CD reproducible con la documentación completa.

Los planos se entregarán además en formato AUTOCAD y el presupuesto en formato PRESTO o BC3 intercambiable.

Igualmente, para la adecuada comunicación a los ciudadanos del contenido del proyecto, el adjudicatario deberá también, en todo caso, presentar infografías en 3D y una descripción informativa y resumida de la obra proyectada.

Esleipendunari dokumentazio hori eskatu ahalko zaio bai konponbideak aztertzeko fasean bai egikaritze-proiektuaren fasean.

Herritarrek parte hartzeko prozesuek irauten duten bitartean, kontratatutako lanak egiteko epeak ez du aurrera egingo, eta udalak esleipendunari behin betiko konponbideak jakinarazten dizkionean hasiko da berriro.

Dicha documentación podrá ser requerida al adjudicatario tanto durante la fase de análisis de las soluciones, como durante la fase de proyecto de ejecución.

Durante dichos procesos de participación ciudadano, el plazo de ejecución de los trabajos contratados se detendrá, retomándose una vez se comunique al adjudicatario desde el ayuntamiento las soluciones definitivas adoptadas.

3.4.- ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA

Esleipendunak egin beharreko lanak oinarrizko puntu hauek bilduko ditu gutxienez:

- Zuinketa Egiaztatzeko Aktara agertzea eta sinatzea.
- Aldian-aldian obrak ikustera joatea eta, nolanahi ere, fase kritikoetan etengabe bertan egotea.
- Laguntza teknikoa ematea geoteknian.
- Obra baldintza-pleguen, jatorrizko proiektuaren eta behar bezala baimendutako alternatiben arabera egin dadin gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Hala badagokio, obrak gauzatzearen ondorioz proiektuak doitzeko dokumentazioa idaztea edo, hala badagokio, obretan aldaketak egiteko behar den dokumentazioa, planoak eguneratu daitezen. Baldin eta obrek dirauten bitartean aldaketarik egiten bada, zuzendaritza fakultatiboak plano berriak egin beharko ditu, beti eguneratuta egon daitezen bai obran bai Irungo Udalaren eskuetan.
- Hilero neurketak eta ziurtagiriak egitea.
- Kontratistak egindako lanen plana kontrolatzea eta jarraipena egitea, eta Irungo Udalari jakinaraztea desorekarik gertatzen bada obra-epeei eta prezio kontrajarriei dagokienez edo aurkeztutako ziurtagirietan egindako neurketa-aldaketei dagokienez.
- Gorabehera tekniko eta ekonomikoak aurreikustea eta haien konponbideari buruzko txostena egitea.
- Obra-zuzendaritzaren berezko lanak egitea, eta jarraibideak emanez, ahoz zein idatziz, proiektuko dokumentuak behar bezala interpretatzeko, eta eraikuntzako nahiz instalazioetako elementuak behar bezala gauzatzeko, obran jartzeko eta erabiltzeko.
- Irungo Udalak deitzen dituen bileretara joatea, obren jarraipen egokia egiteko.
- Kalitatea Kontrolatzeko Programaren jarraipena egitea.
- Obra-amieraren dokumentua idaztea, honako hauek jasoz: "as built" planoak edo obra-amaierako planoak, azken ziurtagiria eta baita laburpen bat ere obrak nola gauzatu diren eta sortu ahal izan diren arazoak nola konpondu diren azalduz.
- Obra-harrerara agertu eta sinatzea.
- Hondakinen Plana onetsi eta haren jarraipena egitea.
- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta -materialen kudeaketari buruzko txostena idaztea, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa

3.4.- DIRECCIÓN FACULTATIVA

El trabajo a desarrollar por el adjudicatario incluirá como mínimo los siguientes puntos básicos:

- Asistencia y firma del Acta de Comprobación de Replanteo.
- Visitas periódicas a realizar de forma asidua a la obra y, en cualquier caso, con presencia constante en fases críticas.
- Asistencia técnica en geotecnia.
- Supervisión y control para que la obra se realice de acuerdo con los Pliegos, Proyecto original y posibles alternativas debidamente autorizadas.
- La redacción, en su caso, de la documentación correspondiente a los ajustes de proyecto derivados de la ejecución de las obras o, en su caso, de la documentación precisa para las alteraciones en obra, de forma que se vayan actualizando planos. En el caso de que existan cambios durante las obras, la dirección facultativa deberá elaborar los planos nuevos de forma que siempre existan, tanto en obra como en manos del Ayuntamiento de Irun actualizados.
- Mediciones y certificaciones mensuales.
- Control y seguimiento del Plan de trabajos realizados por el contratista y notificaciones al Ayuntamiento de Irun de cuantos desajustes se produzcan con respecto a plazos de obra y a precios contradictorios o variaciones de medición en las certificaciones presentadas.
- Previsión de posibles incidencias técnicas y económicas e informe sobre su solución.
- La realización de los trabajos propios de la dirección de obra, dando las instrucciones, tanto verbales como escritas, para la adecuada interpretación de los documentos de proyecto, y la correcta ejecución, puesta en obra y disposición tanto de los elementos constructivos como de las instalaciones.
- La asistencia a las reuniones que sean convocadas por el Ayuntamiento de Irun, para un correcto seguimiento de la ejecución de las obras.
- El seguimiento del Programa de Control de Calidad.
- Redacción de un documento fin de obra que recoja los planos "as built" o planos fin de obra, la certificación final y un resumen de la ejecución

AYUNTAMIENTO DE IRUN SECRETARIA

arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan eta III. eranskinean adierazitako edukia eta irismena azalduz.
- Obrak sortu duen likidazioa egitea, dagokion txostena ere eginda.
- Berme-aldia amaitutakoan obrak berrikustea, eta dagokion txostena egitea.

Aipatutako lanak arin eta zehatz egiteko behar diren baliabide tekniko guztiak edukiko ditu esleipendunak.

4. - PROIEKTUA IDAZTEKO TALDEA

Agiri honetan adierazitako lan guztiak behar bezala egin ahal izateko, teknikari hauek osatu beharko dute, gutxienez, erredakzio-taldea:

- Alternatiben azterketaren eta proiektuaren egileak (k) eta obra-zuzendariak: mota horretako teknikarietariko bat, goi-mailako teknikaria.

Gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko du antzeko proiektuak idazten.

Tituluak aipatutakoak edo Espainiako Goi Mailako Hezkuntzako Prestakuntzaren Espainiako Esparruko baliokideak izan ahalko dira, eta dagokion unibertsitate mailako agintaritzak ziurtatuta egongo dira.

Aurkeztutako dokumentazioan ez dira berariaz aipatuko datu pertsonalak.

Lan-taldearen egitura eta osaera konpromiso formaltzat hartuko dira, esleipendunak izanez gero.

Esleipendun gertatzen den aholkularitza-enpresak ezin izango du alde batera utzi proposatutako erredakzio-taldeko ezein kide, ez eta haren ordez beste bat jarri ere, kontratuaren arduradun teknikoaren onespenik gabe.

Laguntzaileak proiektuaren egilearen enpresa berekoak izan daitezke, edo ez; kasu horretan, lankidetza-konpromisoaren adierazpena aurkeztu beharko dute.

de la obra y de las soluciones adoptadas a la problemática que haya podido ir surgiendo.
- La asistencia y firma a la recepción de las obras.
- La aprobación y seguimiento del Plan de Residuos.
- Redacción del informe de la gestión de residuos y materiales de construcción y demolición con el contenido y alcance que se señala en el artículo 6 y en el Anexo III del Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.
- La expedición de la Liquidación a origen de obra, con su informe correspondiente.
- La revisión de las obras a la terminación del periodo de garantía, y su informe correspondiente-

El adjudicatario contará con todos los medios técnicos necesarios para desarrollar con agilidad y precisión los trabajos señalados.

4.ª- EQUIPO REDACTOR

Para poder desarrollar correctamente todos los trabajos indicados en el presente Pliego, el equipo redactor deberá estar compuesto como mínimo por los siguientes técnicos:

- La o las persona/s autora/s del estudio de alternativas y del Proyecto, así como responsable posterior de la Dirección de la Obra: un/a Técnico/a Superior competente para este tipo de trabajos.

Deberá tener como mínimo 5 años de experiencia en la redacción de proyectos similares.

Las titulaciones podrán ser las mencionadas o sus equivalentes del Marco español de Cualificaciones para la Educación Superior, y estarán certificadas por la autoridad universitaria correspondiente.

En la documentación presentada, no se hará mención expresa a datos personales.

La estructura y composición del equipo de trabajo, se entenderá como un compromiso formal, en caso de resultar adjudicatarios.

La empresa consultora que resulte adjudicataria no podrá prescindir de ninguno de los integrantes del equipo redactor propuesto, ni sustituirlo por otro sin la aprobación del Responsable Técnico del Contrato.

Los/as colaboradores/as podrán pertenecer a la misma empresa que la persona autora del proyecto o no, en cuyo caso deberán presentar su declaración de compromiso de colaboración.

2022ZAUN0034

Aurkeztutako taldeak kontratu osoan zehar parte hartu beharko du eskaintzan.

La participación del equipo presentado en la oferta deberá de mantenerse a lo largo de todo el contrato.

5.- INGURUMEN IKUSPEGIA

A)- Proiektua gauzatzerakoan, minimizatu egin behar da laguntza teknikoak berak ingurumenean duen inpaktua:

- Ahalik eta dokumentu gutxien inprimatuko da.
- Paper birziklatua erabiliko da.
- Behar-beharrezkoa den materiala bakarrik erosiko da, ahalik eta soberakin eta hondakin gutxien sortzeko.

B)- Proiektua idazterakoan, ingurumen-ikuspegia kontuan hartu beharko da, eta neurri hauek edo antzekoak hartu:

- Diseinu estandarreko materialak erabiliko dira, eta hainbat urtetan erabiltzeko modukoak.
- Lehengai eta materialak ahal bezainbat berrerabiliko dira, hala nola eraisketa- eta indusketa-lanetako hondakinak eta azaleko geruza begetala, betiere aplikatu beharreko araudia eta bete beharreko kalitate-estandarrak betetzen badituzte.


5.ª- PERSPECTIVA MEDIOAMBIENTAL

A)- En la ejecución del proyecto se deberá minimizar el impacto ambiental de la propia asistencia técnica:


- Reducción del número de impresiones ajustándolas al máximo.
- Utilización de papel reciclado.
- Compra de material en las cantidades necesarias para minimizar los excedentes y reducir la generación de residuos.

B)- En la redacción del proyecto se deberá tener en cuenta la perspectiva medioambiental, incluyendo medidas tales como:

- El uso de materiales con diseños estándares y disponibilidad durante varios años.
- La máxima reutilización de materias primas y materiales como por ejemplo los residuos de demoliciones, excavaciones o la capa vegetal superficial, siempre que se cumplan tanto la normativa aplicable como los estándares de calidad requeridos.



Ayuntamiento Udala MUNICIPALIA SERVICIO PUBLICO ETA OBRA ALOA irun www.irun.org AREA DE MOVILIDAD VIA PUBLICA Y OBRAS	**SIN ESCALA** **Marzo 2022 Martxoa**	**PROYECTO :** CUBIERTA ZONA DE JUEGOS OIÑAURRE	**PLANO :** **SITUACIÓN**



Ayuntamiento Udala irun www.irun.org	E=1/250 Marzo 2022 Martxoa	PROYECTO : CUBIERTA ZONA DE JUEGOS OIÑAURRE	PLANO : ZONA DE ACTUACIÓN